**Esp.: 2024PLEN0012**
**Erref.: GU /** AEL

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIAK 2024KO AZAROAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hogeita lauko azaroaren hogeita zortzian udaletxe honetako Batzar Aretoan Udalbatza bildu da Igor Enparan Araneta jaun **alkate-udalburuaren** lehendakaritzapean, eta ondoren aipatzen diren **udalkideak** partaide direla:

**Alkateordeak:**

Estitxu Urtizberea Sorzabal and.
Garoa Lekuona Izeta and.
Guadalupe Queiruga Oronoz and.
Josu Peña Alza jna.
Ortzi Alonso Murelaga jna.

**eta zinegotziak:**

Aitzol Arroyo Tumas jna.
Tamara Yaoska Sastre Castillo and.
Gonzalo Carrión Insausti jna.
María Serrano Olascoaga and
Juan Luis Silanes Aguirre jna.
Ainhoa Martinez Arrieta and.
Ander Ribes Lazcanotegui jna.
Jesús Ignacio Alvarez Yeregui jna.
Koldobika Rodriguez Akarregi jna.

Ezin etorria adierazi dute: Alaitz Zabala Zarauz eta Maria Noemi Odriozola Pascual andreek.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa egin dute arratsaldeko seiak eta batean, Gorka Urgoiti Agirre Udal idazkari jauna ere bertan naizela.

Interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko azaroko ohiko udalbatzarra gerturatu zareten herritar ordezkarioi, eta baita hona etorri zareten herritarrak… teknikariei ere eskerrik asko, eta etxetik streaming

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE HONDARRIBIA EL DIA 28 DE NOVIEMBRE DE 2024.**

En la Ciudad de Hondarribia a veintiocho de noviembre de dos mil veinticuatro se constituye el Ayuntamiento Pleno en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **alcalde-presidente,** D. Igor Enparan Araneta, y con la asistencia de los/as **tenientes de alcalde Sres./as.:**

Dª Estitxu Urtizberea Sorzabal
Dª Garoa Lekuona Izeta
Dª Guadalupe Queiruga Oronoz
D. Josu Peña Alza
D. Ortzi Alonso Murelaga

**y de los concejales y las concejalas Sres./as.:**

D. Aitzol Arroyo Tumas
Dª Tamara Yaoska Sastre Castillo
D. Gonzalo Carrión Insausti
Dª María Serrano Olascoaga
D. Juan Luis Silanes Aguirre
Dª Ainhoa Martinez Arrieta
D. Ander Ribes Lazcanotegui
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui.
D. Koldobika Rodriguez Akarregi

Han justificado su ausencia: Dª Alaitz Zabala Zarauz y Dª Maria Noemi Odriozola Pascual.

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las dieciocho horas y un minuto, asistidos/as de mí, el secretario, D. Gorka Urgoiti Agirre.

Intervenciones:

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias a las y los representantes de la ciudadanía, a la ciudadanía, y al personal técnico que asistís a esta sesión, y así mismo a quienes nos seguís por medio de

ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

bitartez jarraitzen gaituzuenoi ere esker ona adierazi nahi dut.

Bilkura hasi ondoren, honako zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dira:

**IDAZKARITZA**

**1.-HONAKO BILKURETAKO AKTEN IRAKURKETA ETA ONARPENA, BIDEZKOA BADA:**

***2024KO IRAILAREN 26KOA**

Udalbatzak 2024ko irailaren 26ko bilkurako akta irakurri ondoren.

Akta bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** aho batez, hauxe **ERABAKI DU**: Udalbatzak 2024ko irailaren 26ko bilkurako akta onartzea.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Hasiko gara aztergaien zerrendatik; lehenengo puntuan bilkuretako akten onarpena egiten dugu normalean, kasu honetan 2024ko irailaren 26ko aktaren onarpena izango dugu, Ez dakit irakurri duzuen… zerbait zuzentzeko edo aipamenak egiteko baduzuen… Bozkatuko dugu, beraz, 2024ko irailaren 26ko aktaren onarpena. Aldeko bozkak? Aho batez onartua.

**ALKATETZA**

**2.- MARIA SERRANO OLASCOAGA ANDREAK HONDARRIBIKO KULTURA ONDAREA ZAINTZEKO ETA HEDATZEKO ARMA PLAZA FUNDAZIOKO PATRONO KARGUARI BURUZ AURKEZTURIKO UKO EGITEAREN BERRI EMATEA ETA IZENDAPEN BERRIA EAJREN ORDEZKARITZAN**

2024ko azaroaren 21eko 12812 SE idatzia aztertu

streaming desde casa. Os quiero mostrar mi agradecimiento.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar los siguientes puntos del orden del día:

**SECRETARÍA**

**1.-LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE LAS SIGUIENTES SESIONES:**

***26 DE SEPTIEMBRE DE 2024**

Dada lectura del acta de la sesión plenaria celebrada el día 26 de septiembre de 2024.

Sometida a votación el acta, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (2).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:** aprobar el acta de la sesión plenaria celebrada el día 26 de septiembre de 2024.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Comenzaré con el Orden del Día; en primer lugar, realizaremos, como habitualmente, la aprobación de las actas de las anteriores sesiones, en este caso del acta den 26 de septiembre del 2024. No sé si la habéis leído, si tenéis algo que corregir o mencionar… Entonces procederemos a votar la aprobación del acta del 26 de septiembre del 2024. ¿Votos a favor? Aprobada por unanimidad.

**ALCALDÍA**

**2.-DAR CUENTA DE LA RENUNCIA AL CARGO DE PATRONO DE LA FUNDACIÓN ARMA PLAZA PARA LA CONSERVACIÓN Y DIFUSIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL DE HONDARRIBIA PRESENTADA POR Dª MARIA SERRANO OLASCOAGA Y NUEVA DESIGNACIÓN EN REPRESENTACIÓN DE PNV.**

Visto el escrito RE 12812 de 21 de noviembre de



ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

ondoren, Maria Serrano Olascoaga andreari buruzkoa. EAJ udal taldeko zinegotzia da, eta uko egin dio Hondarribiko Kultur Ondarea Zaindu eta Zabaltzeko Arma Plaza Fundazioko patrono karguari.

2024ko azaroaren 21eko 12812 SE zenb. berarekin Ander Ribes Lazkanotegi jauna, EAJ udal taldeko zinegotzia, patronatukide izendatzea proposatzen da, Serrano andrearen ordez.

EAJko zinegotzi den Maria Serrano Olascoaga andrearen Hondarribiko Kultura Ondarea Zaintzeko eta Hedatzeko Arma Plaza Fundazioko patrono karguari buruzko uko egitearen berri eman da, eta EAJren ordezkaritzan Ander Ribes Lazkanotegi jaunaren izendapenaren berri, 2024ko azaroaren 21eko 12812SE zenb.koa.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Bigarren puntua berri emate bat da, kasu honetan Maria Serrano Olascoaga andreak Hondarribiko Kultur Ondarea Zaintzeko eta Hedatzeko Arma Plaza Fundazioko patrono kargoari buruz aurkezturiko uko-egitearen berri ematea eta izendapen berria EAJren ordezkaritzan. Kasu honetan, azaroaren 21ean aurkeztu zuen Maria Serrano Olascoagak idatzia Arma Plaza Fundazioko kide izateari uko egiten diona, eta egun berean aurkeztu zuen EAJ-PNVren idatzia erregistro bitartez, Mariaren ordez Ander Ribes Lazkanotegi izendatzeko proposamena. Beraz, hau berri emate bat da, eta honela Arma Plaza Fundazioko patronatuan aldaketa hau egingo dugu, ez baldin badago kontrako irizpiderik, behintzat. Norbaitek zerbait esan nahi du? Bada…nik esker ona adierazi nahi diot Mariari egindako ekarpenagatik Arma Plaza Fundazioan orain artean, eta bide batez Anderri ongi etorria emango diogula eta lan oparoa izatea espero dudala, fundazio horretan.

Berri eman da, beraz, Udalbatza jakinaren gainean dago.

2024 en relación a Dª María Serrano Olascoaga, concejala del grupo municipal PNV, renunciando al cargo de patrona de la Fundación Arma Plaza para Conservación y Difusión del Patrimonio Cultural de Hondarribia.

Visto que, mediante el mismo RE 12812 de 21 de noviembre de 2024, se propone el nombramiento de D. Ander Ribes Lazkanotegi, concejal del grupo municipal PNV, para el cargo de patrono en sustitución de la Sra Serrano.

Se da cuenta de la renuncia al cargo de patrona de la Fundación Arma Plaza para la Conservación y Difusión del Patrimonio Cultural de Hondarribia de la concejala del PNV, Dª María Serrano Olascoaga, y de la nueva designación en representación del PNV de D. Ander Ribes Lazkanotegi, RE 12812 de 21 de noviembre de 2024.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** El segundo punto consiste en una comunicación, en este caso sobre la renuncia presentada por María Serrano Olascoaga al cargo de patrona de la Fundación Arma Plaza para la Conservación y Difusión del Patrimonio Cultural de Hondarribia, y sobre el nuevo nombramiento que recae en un miembro de EAJ-PNV. En este caso María Serrano Olascoaga presentó el escrito de renuncia a ser miembro de la Fundación Arma Plaza el 21 de noviembre, y ese mismo día se presentó por registro un escrito del grupo EAJ-PNV, proponiendo a Ander Ribes Lazkanotegi como sustituto de María. Por lo tanto. Se trata de una comunicación, y efectuaremos así la modificación en el Patronato de la Fundación Arma Plaza, si no hay inconveniente. ¿Alguien quiere decir algo? Yo, personalmente, quiero agradecer a María la aportación a realizada en Arma Plaza Fundazioa hasta el día de hoy, y de paso dar la bienvenida a Ander, y expresarle que esperamos que realice una labor fructífera en la fundación.

Se ha informado, con lo cual la Corporación queda enterada.

ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

**3.-2024KO 3. HIRUHILEKOAREN HIRUHILEKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA: ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA, MERKATARITZA OPERAZIOETAN DAGOEN BERANKORTASUNA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOA.**

2024. ekitaldiko 3. hiruhilabetekoari dagozkion ordaintzeko batez besteko epeari, merkataritza operazioetan dagoen berankortasunari eta aurrekontuaren exekuzioaren hiruhileko informazioari buruzko espedientea aztertu ondoren.

2024ko azaroaren 5eko Udal diruzain andrearen txostenaren berri eman dute, 2024. ekitaldiko 3. hiruhilabetekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epeari eta merkataritza operazioetan dagoen berankortasunari buruzko hiruhileko informazioaz.

2024ko azaroaren 6ko Udal kontu-hartzaile jaunaren txostenaren berri eman dute, 2024. ekitaldiko 3. hiruhilabetekoari dagokion aurrekontuaren exekuzioari buruzko hiruhileko informazioaz.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Hirugarren puntura pasako gara, eta hirugarren puntuan 2024ko hirugarren hiruhilekoaren informazioaren berri ematea da: ordaintzeko batez besteko epea, merkataritza operazioetan dagoen berankortasuna, eta aurrekontuen exekuzioari dagokiona. Eta hemen aipatu…hiru hilero egiten dugula…kasu honetan berri emate bat, eta oraingoan, besteetan bezala, hirugarren hiruhilekoari dagokionez Hondarribiko Udala, Hondarribia Lantzen eta Arma Plaza Fundazioak egindako ordainketak ia 3.328.000 euroko ordainketak izan direla, eta bataz besteko ordaintzeko epea, faktura hauena, zortzi egunekoa izan dela aipatu behar dut; kasu honetan Hondarribiko Udalak ordaintzen ditu azkarren eta Hondarribia Lantzenek eta Arma Plaza Fundazioak bada…hogei egunetik gorako berankortasuna dutela aipatu; eta beste alde batetik aurrekontuaren exekuzioari dagokionez, bada… irailaren 30era arte gauzatutakoa, bueno… jasotako ekarpenak edo diru-bilketa likidoa ia 22 milioi

**3.-DAR CUENTA DE LA INFORMACIÓN TRIMESTRAL RELATIVA AL 3ER TRIMESTRE DE 2024: PERIODO MEDIO DE PAGO, MOROSIDAD EN LAS OPERACIONES COMERCIALES Y EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO.**

Examinado el expediente relativo a la información trimestral relativa al periodo medio de pago, morosidad en las operaciones comerciales y ejecución del presupuesto relativos al 3er trimestre del ejercicio 2024.

Se da cuenta del informe de 5 de noviembre de 2024 de la Sra. tesorera municipal en relación a la información trimestral relativa al periodo medio de pago y a la morosidad en las operaciones comerciales del 3er trimestre del ejercicio 2024.

Se da cuenta del informe de 6 de noviembre de 2024 del Sr. interventor municipal en relación a la información trimestral relativa a la ejecución del presupuesto relativa al 3er trimestre del ejercicio 2024.

El Ayuntamiento Pleno queda enterado.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Pasaremos al tercer punto, el cual consiste en dar cuenta de la información del tercer trimestre del 2024: plazo medio de pago, morosidad en las operaciones comerciales y ejecución presupuestaria. Y aquí citamos... que realizamos trimestralmente… una comunicación…, y en este caso, como en otros, que los pagos realizados por el Ayuntamiento de Hondarribia, la Fundación Hondarribia Lantzen y Arma Plaza Fundazioa han sido de casi 3.328.000 euros, y que el plazo medio de pago, de estas facturas, ha sido de ocho días en el caso del Ayuntamiento de Hondarribia, que es quien antes paga, y que en el caso de Hondarribia Lantzen y la Fundación Plaza de Armas es de... que tienen una morosidad superior a veinte días; y por otro lado, en cuanto a la ejecución presupuestaria, hay que decir... que las aportaciones o recaudación líquida hasta el 30 de septiembre... han sido de casi 22 millones de euros, y que los gastos realizados o pagos líquidos han sido de más de 18 millones y



ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

eurokoa izan dela aipatu, eta gauzatutako gastuak edo ordainketa likidoak 18 milioi euro eta erditik gorakoak izan direla.

medio de euros.

Bueno, hau modu orokorrean esanda, xehatuta jaso duzue zinegotzi guztiok kontu-hartzailearen txostenak, eta dakit honen inguruan azalpen gehiagorik behar den?

Bueno, esto en términos generales, habéis recibido todas y todos los Concejales detalladamente los informes del interventor, y…¿ es necesaria alguna explicación más al respecto?

**KONTUEN BATZORDE BEREZIA**

**COMISIÓN Y ESPECIAL DE CUENTAS**

**4.-PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA OROKORRA ONARTZEKO PROPOSAMENA**

**4.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LA ORDENANZA GENERAL REGULADORA DE PRECIOS PÚBLICOS**

Prezio publikoen ordenantza orokorra onartzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación de la ordenanza general reguladora de precios públicos.

2024ko azaroaren 21eko Kontuen Batzorde Bereziaren diktamena ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión y Especial de Cuentas de 21 de noviembre de 2024.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 14, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5) eta EH Bildu (2).
Aurkako botoak: 0.
Abstentzioak: 1, PSE-EE-PSOE.

Votos a favor: 14, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5) y EH Bildu (2).
Votos en contra: 0.
Abstenciones: 1, PSE-EE-PSOE.

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** aldeko legezko gehiengo osoz, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría absoluta legal favorable, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Prezio publikoen ordenantza orokorra onartzea.

**PRIMERO.-**Aprobar la ordenanza general reguladora de precios públicos.

**BIGARREN.-**Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ondorengo akordioa argitaratzea.

**SEGUNDO.-**Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

**ALKATE JAUNA:** Beraz zinegotziei berri emanda pasako ginateke 4. puntura. Laugarren puntua Kontuen Batzorde Berezikoa da, eta prezio publikoen ordenantza orokorra onartzeko proposamena da. Urriko Udalbatzan onartu genituen 2025erako ordenantza fiskalak, eta bilkura hartan aipatu genuen azken hamarkadetako eguneraketa sakonena zela jasotzen genuena

**EL SR ALCALDE:** Por lo tanto, una vez informada la Corporación sobre el tema pasaríamos al 4º punto, que proviene de la Comisión Especial y Cuentas, y consiste en la propuesta de aprobación de la ordenanza de precios públicos. Aprobamos en el Pleno de octubre las ordenanzas fiscales del 2025, y mencionamos en dicha sesión que en tales



ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

ordenantza horietan. Baina ez zela lan horren azken urratsa, baizik bazeudela beste urrats batzuk eman beharrekoak genituenak. Izan ere, aipatzen genuen ordenantza fiskal horietan bazeudela hainbat atal prezio publikoaren araubidearen bitartez jaso behar zirenak. Eta urrats hori egiteko proposamena da gaur dakarguna Udalbatzara. Honen harira bi gauza azaldu behar edo nahi nituzke: alde batetik prezio publikoak ez direla tributu bat, eta tributuak soilik direla zerga, tasa eta kontribuzio bereziak, eta horregatik horiek arautzeko jasotzen da ordenantza fiskalaren bitartez. Eta udalek izan ditzaketen gainerako diru-sarrera guztiak direla ordenantza honen bitartez, Prezio Publikoen Ordenantzaren bitartez, jaso behar direnak.

ordenanzas recogíamos la actualización más profunda de las últimas décadas. Pero que no se trataba del último paso de aquella labor, que había otros pasos a dar. De hecho, comentábamos que en dichas ordenanzas fiscales había diversos apartados que debían recogerse mediante el reglamento de precios públicos. Y lo que traemos hoy al Pleno es la propuesta para dar ese paso. Con respecto a esto quisiera o debo señalar dos cuestiones: por un lado, que los precios públicos no son un tributo, y que los tributos son únicamente los impuestos, las tasas, y las contribuciones especiales, y que por ello su regulación se recoge en las ordenanzas fiscales. Y que el resto de los ingresos que tiene el ayuntamiento son los que deben recogerse mediante esta ordenanza, la Ordenanza de Precios Públicos.

Kasu honetan, ordenantza fiskaletan badaude prezio publikoak izeneko atal batean etxez etxeko laguntza zerbitzuagatik ezarritako prezioak, eta atal hau ez da zuzena Ordenantza Fiskaletan, eta beste alde batetik ere badaude tasak izeneko atalean hainbat atal ez dutenak tasa izateko baldintzak betetzen.

En este caso, en las Ordenanzas Fiscales existen unos precios establecidos en un apartado denominado precios públicos por el servicio de ayuda a domicilio, que no es correcto que estén en las Ordenanzas Fiscales, y por otro lado, en el apartado denominado tasas hay varios apartados que no cumplen los requisitos para tener la consideración de tasa.

Zeintzuk dira tasa izateko baldintzak? Alde batetik, arau bat egon behar du jasotzen duena behartuak gaudela zerbitzu horiek emateagatik tasa bat jasotzera, eta beste alde batetik udalak ematen duen zerbitzu bat izan behar du, eta soilik udalak eman ahal duena. Adibide bezala eta erraz ulertzeko moduan, hirigintzako lizentziak ematen direnean udala da eskumena duena lizentzia hori emateko, eta horregatik, tasa udalak bakarrik eman dezakeenez, eta udalak ematen duenean, tasa izaera dauka.

¿Cuáles son los requisitos para ser tasa? Por un lado, debe haber una norma que recoja que estamos obligados a percibir una tasa por la prestación de estos servicios y, por otro lado, debe ser un servicio que presta el ayuntamiento y que sólo el ayuntamiento puede prestar. A modo de ejemplo, para facilitar la comprensión, cuando se otorgan las licencias urbanísticas es el ayuntamiento el competente para otorgarlas, por lo que la tasa sólo puede ser concedida por el ayuntamiento, y cuando la otorga el ayuntamiento tiene el carácter de tasa.

Baina badaude gure araubidean zenbait gauza jasotzen direnak, ez dutenak zertan tasa bat izan behar, adibidez beste noizbait hitz egin izan dugun liburuen edo publikazioen prezioak, ez? eta horiek ez da udala bakarrik egin dezakeena, badaude beste eragile edo elkarte batzuk egin ditzaketenak, eta horregatik prezio publiko izan beharko luke bere izaera.

Pero hay cosas que se recogen en nuestro reglamento, que no tienen por qué ser una tasa, por ejemplo, los precios de los libros o de las publicaciones que hemos tratado en otras ocasiones, ¿no? y estos no sólo pueden ser realizados por el ayuntamiento, hay otros/as agentes o asociaciones que los pueden hacer, y por eso debería ser un precio público.

ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

Horregatik Hondarribiko Udalak duen tresna berri bat sortzera goaz oraingoan, eta bide batez aurretik dugun ordenantza fiskalen erraminta hori zuzentzeko baliatuko dugu. Zer esan nahi dut honekin? ordenantza berri honekin gaurtik aurrerakoan gure ekimenez emango diren hainbat eskaintzari ezarri beharreko prezioak ezartzerako garaian objektibatu egiten dugula nola eta zer prozeduraren bitartez ezarri behar diren prezio horiek, eta beste alde batetik, bide batez ere aprobetxatuko dugu, lehendik, aurreko hilabetean onartu genituen ordenantza fiskaleko hainbat atal derogatzeko, honen barruan sartuko direlarik, hala nola lehen aipatu dudan etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontzeptu hori, udalak antolatutako ikastaro edo/eta ekintzak ere, iragarkiak udal argitalpenetan, udal argitalpenak beraiek, eta udal liburutegi eta artxiboko zerbitzuak ere jasoko ditu bere gain prezio publikoen ordenantza honek. Honela, pentsatzen dugu zuzenketa honekin, hau onartzearekin, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta beharrezkoa den epea pasatutakoan indarrean sartzen denean, iruditzen zaigu hobekuntza garrantzitsu bat egingo dugula daukagun gure araubidean, eta horretarako ekartzen dugu proposamen hau.

Es por ello que en este momento se va a proceder a la creación de un nuevo instrumento para el Ayuntamiento de Hondarribia, que servirá para corregir las ordenanzas fiscales que tenemos. Con esta nueva Ordenanza quiero decir que, a la hora de fijar los precios a aplicar a las diferentes ofertas que se van a realizar a partir de hoy por iniciativa propia, objetivamos cómo y mediante qué procedimiento han de fijarse dichos precios y, por otra parte, aprovechamos también para derogar algunos apartados de la Ordenanza Fiscal que ya aprobamos el pasado mes, incluyendo el concepto de Servicio de Ayuda a Domicilio al que me he referido anteriormente, los cursos y/o actividades organizados por el Ayuntamiento, los anuncios en publicaciones municipales, las propias publicaciones municipales, así como el servicio de bibliotecas y archivos municipales. Así, pensamos que con esta corrección, con su aprobación, y una vez publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y transcurrido el plazo necesario, consideramos que vamos a realizar una importante mejora en nuestro reglamento, para lo cual aportamos esta propuesta.

Ez dakit galdera edo zalantzarik edo badagoen?

¿Hay alguna pregunta o duda?

Gonzalo, zurea da hitza.

Gonzalo, te cedo la palabra.

**CARRION JAUNA:** Bai, kasu honetan, bada…bueno, arratsalde on denei…kasu honetan gu erabat ados gaude prozedura honi hasiera emateko, batez ere ordenantza orokorra onartzeko proposamena denez, gu aldekoak izango gara, baina gogoratu azkeneko Udalbatza batean, martxoan egin zen egun hartan, lau libururen prezioak jarri genituela, eta bertan diruzainaren txostenak argi esaten du…komenigarritzat jotzen du udal argitalpenen gaineko prezio publikoak ekarri eta antolatzeko espedientea izapidetzea eta orduan horri jarraipena emateko, bada…guk ere alde egingo dugu.

**EL SR CARRIÓN**: Sí, en este caso, buenas tardes a todas y todos…en este caso estamos de acuerdo plenamente en iniciar este procedimiento, sobre todo al tratarse de una propuesta de aprobación de la Ordenanza General, en nuestro caso vamos a votar a favor, pero recordamos que en un Pleno Municipal, celebrado un día  del mes de marzo, se fijaron los precios de cuatro libros, y que constaba el informe del Tesorero que decía claramente... considera conveniente la tramitación del expediente de fijación y ordenación de precios públicos de las publicaciones municipales, entonces, pues en nuestro caso también vamos a favor...

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko, beste norbaitek?Iosu? Zurea da hitza.

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias. ¿Alguien más?¿Iosu? Te cedo la palabra.

**ALVAREZ JAUNA:** Lehenbizi eta behin, eskertu egin dut langileak egin duten lana, nahiko

**EL SR ÁLVAREZ:** En primer lugar, quiero agradecer la labor realizada por el personal, ha sido

ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

interesantea izan dela, baina, nolanahi ere, espedientean hauek daude: 2024ko apirilaren 26ko aurrekontsultako iragarkia, idazkariaren maiatzeko egiaztagiria, diruzaintzaren azaroaren 12ko txostena, udal idazkariaren azaroaren 15eko txostena, eta gero diktamena. Eta guri azaroaren 18an eman zitzaigun dokumentua, eta batzordea azaroaren 21ean izan zen. Esan beharra dut, nire ikuspegitik, ordenantza hau ordenantza fiskalak onartuta hilabete bat igarota onartzea, agudoegi onartzea dela prezioak duela hilabete bete besterik ez baitugu onartu, eta horiek prezio publikoei eragiten baitiete.

bastante interesante; pero, en todo caso, una vez agradecido el trabajo, yo tengo que decir que el expediente que aparece es… en todo caso… empieza, el anuncio de consulta previa el 26 del 4 del 2024, certificado del secretario en mayo, informe de tesorería el 12 de noviembre, el 15 de noviembre el informe del secretario municipal, y luego el dictamen. Y a nosotros/as se nos entrega el documento el día…el 18 de noviembre, y la comisión fue el 21 de noviembre. En todo caso, yo tengo que decir que desde mi punto de vista me parece que aprobar esta ordenanza a un mes de la aprobación de las ordenanzas fiscales es un poco prematuro, cuando hemos establecido los precios hace sólo un mes, que afectan también a los precios públicos.

Iruditzen zait hemen falta dela kontu-hartzailetzaren dokumentua, non modu praktikoagoan definitzen den zer onartzen ari garen ordenantza berri bat ezarrita, eta zer kontzeptutan aplikatuko zitzaion, kontzeptuen hurbilketa batetik abiatuta. Zer diren prezio publikoak, tasen eta tributuen arteko aldea, edo orain tasa gisa ezartzen diren horietan prezio publikoak ezartzeko aukera. Eta nola eragingo luketen prezioek... adibidez, Kasino Zaharrekoek... Kasino Zaharraren kontua... agirian nolabait kafe bat agertzen denean... hori zer den prezio publiko bat, tasa bat... uste dut prezio publiko bat izango dela, lehia dagoelako. Hau da, nik uste dut nolabait... eta gero zuk ere komentatu duzu, etxez etxeko laguntzaren gaia, nolabait ere, prezio publiko gisa agertzen da.

Echo en falta el documento de Intervención donde se defina de forma más práctica qué es lo que estamos aprobando, con el establecimiento de una nueva ordenanza, y en qué tipo de conceptos se le iba a aplicar, desde una aproximación de los conceptos. Qué son los precios públicos, diferencia de tasas, tributos, o la posibilidad de establecer precios públicos en lo que ahora se establecen como tasas. Y cómo afectarían los precios…por ejemplo del Kasino Zaharra…el tema del Kasino Zaharra…cuando de alguna forma en el pliego aparece un café…eso qué es un precio público, una tasa…me imagino que será un precio público, porque hay competencia. Es decir, yo creo que de alguna forma…y luego también ya lo has comentado tú, el tema de etxez etxeko laguntza, de alguna forma también aparece como precio público.

Nolanahi ere, nik uste dut gustatuko zitzaidala... nik nahiago izango nukeen eztabaida honetan kontu-hartzailetzaren txostena izango bagenu, eta ez dago, Diruzaintzaren txosten bat dagoelako, baina ez dago kontu-hartzailetzaren txostenik, hau da, kasu honetan kontu-hartzaileak ez du ezartzen... ez du supuesto bat egiten, supuesto bat da, adibidez... izan ere, gero, nolanahi ere, prezio publikoak ezarri behar badira, ordenantza fiskala zer den landu behar badugu, Kontu-hartzailetzaren txostena egon beharko da, segur aski, kasu batzuetan.

En todo caso, yo creo que me hubiera gustado…yo hubiera preferido que en este paquete de esta discusión hubiéramos tenido un informe de Intervención, y no lo hay, porque hay un informe de la Tesorería, pero no hay un informe de Intervención, es decir que el interventor en este caso no establece…no hace un supuesto, un supuesto es por ejemplo una información de que …porque después, si en todo caso, hay que establecer precios públicos, si tenemos que trabajar de lo que es la ordenanza fiscal, tendrá que haber informe de Intervención, seguramente, en algunos casos.

ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

Erregelamenduari dagokionez, hitzaurrean ikusten denez, lehenengo xedapenetan, printzipioetan, erregulazio-printzipioaren beharra agertzen da, segurtasun juridikoa denaren beharra ere agertzen da, gardentasunaren gaia ere agertzen da, baina prezio publikoek ez dute inoiz ere kontuan hartu elkartasun-printzipioa. Hau da, printzipioaz hitz egin dugu... beharrezkoak dira... gainera, nire ustez, hemen agertzen dira, kontzeptu batzuk agertzen dira, eta erregelamenduan, nolanahi ere, helburu horri erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa ere jasotzen da, segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez. Gardentasun-printzipioa errespetatzen du, baina hemen inoiz ez da agertzen elkartasun-printzipioa, nire ustez garrantzitsua dena. Eta hori esaten dut kontuan hartu behar delako, baldin eta... esan nahi dut elkartasun-printzipioa, herritarren eta familien errenta kontuan hartzen duena, une honetan agertzen diren gai batzuei eragiten dien bezala, adibidez etxez etxeko laguntzari buruz ari garenean, non elkartasun-printzipioa agertzen den, IPREMen arabera kobratzen zaielako. Eta dokumentu honen hitzaurrean ez da horri buruzko ezer agertzen, eta hori gai bat dela iruditzen zait, nire ustez jaso behar dena. Eta gero, 3. puntuko artikuluaren gaian, 3.2 puntuari dagokionez, egokia ez den modu batean definitzen da, adibidez, arrazoi sozialak, onurak eta abar ote dauden esaten duenean. Nik uste dut arrazoi sozialak kontuan hartu behar direla, nolabait ere kontzeptu horiek hor daude, nik uste dut kontzeptu horiek askoz ere adostasun handiagoa izan behar dutela. Eta horregatik guztiagatik... horregatik guztiagatik, guk ez dugu aurkako botorik emango, hor dagoen bidea delako, baina abstentziora joango gara.

En lo referente al reglamento, el preámbulo, veo que en las primeras disposiciones, en los principios aparece la necesidad de principio de regulación, aparece la necesidad de lo que es la seguridad jurídica, aparece también el tema de la transparencia, pero en ningún momento de que los precios públicos también tienen que tener en cuenta el principio de solidaridad. Es decir, hemos hablado del principio…son necesarios…además yo creo que aquí aparecen, aparecen una serie de conceptos, en el reglamento, en todo caso, se recoge así mismo la regulación imprescindible para atender este fin, respecto al principio de seguridad jurídica. Respeta el principio de transparencia, pero en ningún momento aquí aparece el principio de solidaridad, que yo creo que es importante. Y digo esto porque hay que tener en cuenta, si llevo…digo el principio de solidaridad, donde se tenga en cuenta la renta de los/as ciudadanos/as y las familias, como en este momento afecta al algunas cuestiones que aparecen, por ejemplo cuando hablamos de etxez etxeko laguntza, en el que sí aparece el principio de solidaridad, porque se les cobra en función del IPREM. Y en el preámbulo de este documento no aparece nada de eso, lo cual me parece que es un tema, que yo creo que también tiene que recoger. Y luego, en el tema del artículo del punto 3, en lo que es el punto 3.2 también se define de una forma no afortunada cuando dice, por ejemplo, si existen razones sociales, beneficios y tal. Yo creo que se tiene que tener en cuenta razones sociales, de alguna forma son conceptos que bueno, están ahí, yo creo que son conceptos que yo creo que tienen que tener una consonancia mucho más fuerte. Y por todo ello…por todo lo cual nosotros no vamos a votar en contra, porque es un camino que está ahí, pero vamos a ir a la abstención.

**ALKATE JAUNA:** Oso ondo, eskerrik asko. Besterik? Garoa?

**EL SR ALCALDE:** Muy bien, gracias. ¿Algo más? ¿Garoa?

**LEKUONA ANDREA:** Bai, arratsalde on. Gure aldetik, aipatu azken finean, hemen, eta hasieran aipatu den bezala, ordena jartzea da helburu, tasa, zerga eta prezio publiko bakoitza dagokion ordenantzaren baitan jasotzea, eta noski beti egongo direla gauzak hobetzeko, baina nik uste dut eta guk uste dugu pauso garrantzitsua dela, zeren behingoagatik ere teknikariak eskatu izan duten horri bide ematen ari zaiolako, eta bueno, bada…

**LA SRA LEKUONA:** Sí, buenas tardes. Por nuestra parte, en definitiva, quiero mencionar aquí, tal y como se ha mencionado al principio, que el objetivo es ordenar cada una de las tasas, impuestos y precios públicos dentro de la ordenanza correspondiente, y claro siempre quedarán cosas por mejorar, pero yo creo…y nosotros/as creemos que es un paso importante porque, aunque por una vez se están dando pasos



ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

hasi, hasiera bat da, eta hor joango da ikusten ze gauza gehiago sartu beharko diren, baina gutxienean marko bat, kontzeptu bakoitzari dagokion araudia egiteko, beraz, gurea ere aldekoa izango da.

para cumplir lo solicitado por el personal técnico, bueno... es un comienzo, y se irá viendo qué más cosas hay que introducir, pero al menos un marco para hacer la normativa correspondiente a cada concepto, por lo que el nuestro voto también será favorable.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Bueno, hemen aipatu nahi nuke formei buruz hitz egin denez, hau da, diruzainaren txostena badagoela, eta kontu-hartzailearen txostenik ez dagoela, diruzaintzako ardurako gai bat zen hau, ez kontu-hartzailetzakoa, Diruzaintzakoa zen, teknikari arduraduna gai hau jorratzeko diruzaina zen, eta horregatik jaso da diruzaintzako txostena, jaso da idazkari jaunaren txostena ere prozedura jarraitu beharrekoa izan dela, eta ez eduki zalantzarik lanketa hau egiterako garaian kontu-hartzailearekin berarekin ere landu dela. Orduan forma kontuak aipatzen direnean argitu forma aldetik, behintzat, jarraitutako prozedurak betetzen duela horrelako arau bat onartzeko ibilbidea. Eta beste alde batetik egin den aipamena, ikuspegi sozialarena, gero irakurri den puntuarekin noski jasotzen du argi eta garbi arau honek uzten duela bidea Udalbatza honek erabakitzen baldin badu ikuspegi sozialetik zerbitzu edo objektu horren salmentagatik eman behar den prezioa kostua baino txikiagoa dela justifikatu daitekeela ikuspegi horretatik eta aukera guztia ematen du gero prezio berriak ezartzen ditugun horretan gu izango gara, Udalbatza izango da eskumena duena jada kostuaren prezioaren azpitik kobratzen duen ikuspegi soziala sartzen dion kasuan kasuko zerbitzu edo prestazio horri, beraz aukera zabaldu da, eta nahita jaso da horrela, zabaltzeko aukera ematearekin. Orduan, argipen hauek emanda, bozketara pasako gara ondo iruditzen bazaizue?

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias. Bueno, aquí me gustaría mencionar que cuando se habla de las formas… es decir, que hay un informe del tesorero y no hay un informe del interventor. Este era un tema de responsabilidad de tesorería, no de intervención, era un tema de tesorería, la técnica responsable para tratar este tema era la tesorera, y por eso se ha recibido el informe de Tesorería. Se ha recogido también el informe del Sr. secretario, un procedimiento a seguir necesario, y no hay duda de que en este proceso se ha trabajado también con el propio interventor. Entonces, cuando se hace referencia a cuestiones formales, quiero aclarar que, al menos formalmente, el procedimiento seguido cumple los requisitos para aprobar una norma de este tipo. Y la referencia que se hace, por otra parte, a la vertiente social, con el punto que luego se ha leído se deja claro que esta norma permite claramente que si desde el punto de vista social esta Corporación decide que el precio que se ha de dar por la venta de ese servicio u objeto es inferior al coste, se podrá justificar desde esta perspectiva, dará opción a que los que luego establezcamos los nuevos precios seamos nosotras y nosotros, será la Corporación la competente para que el servicio o prestación de que se trate incorpore una visión social, que ya se cobra por debajo del precio del coste, por lo que se amplía la posibilidad. Y así se ha recogido a propósito, con la posibilidad de ampliarlo. ¿Pasamos entonces a la votación, si os parece bien, con estas aclaraciones?

Iosu, hitza hartu nahi duzu? Bai? Gaiari buruz hitz egiteko? Oso ondo.

Iosu, ¿quieres intervenir? ¿Sí? ¿Sobre el tema? Muy bien.

**ALVAREZ JAUNA:** Ea, nik ez dut inoiz esan formetan huts egin dutenik. Esan dut, besterik gabe, gustatuko zitzaidala edo gomendatuko nukeena dela, nolabait, proiektu bat egiten duzunean eta ez partitura bat egiten duzunean, oso ondo dagoela musika, baina musikak letra behar du, eta ni esaten ari naizena da une honetan ez dagoela letrarik, letra etereo bat dago, nolabait prezio, tasa, zerga eta prezio publiko batzuk orain arte gauza batean

**EL SR ÁLVAREZ:** A ver, yo en ningún momento he dicho que de alguna forma se haya fallado en las formas. Simplemente lo que he dicho es que me hubiera gustado o recomendado, que de alguna forma cuando tú haces un proyecto y no cuando haces una partitura, está muy bien la música, pero la música necesita letra, y yo lo que estoy diciendo es que en este momento no hay letra, hay una letra etérea, en el sentido de que hay una serie de



ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

oinarrituta zeudela, hau da, ordenantza fiskaletan, eta horren zati bat ordenatzen dela, noski. Ni formen gaian ez... ez naiz sartuko. Baina esan nahi dut gustatuko zitzaidakeela gero hori tasa bat den edo prezio publiko bat den ala ez adierazteko txostenak egin beharko dituen pertsonaren aldetik, aldez aurretik izatea, nola edo hala aurretiko txosten bat, nolabait ulertu ahal izateko zeri buruz ari garen. Hori da, besterik gabe, gaiaren xehetasuna. Horixe.

Bigarren zatiari dagokionez, nik ez dut zalantzarik udal honek, ohi bezala, sentsibilitate nahikoa ez duenik prezioen gaian, tira, besterik gabe, eta esan bezala, IPREM edo IMSren aplikazioa aurreikusiko ez duenik, kasu batzuetan, bai laguntzen gaian (adibidez, familia ugarien gaian), bai zergen gaian, baina bai prezio publikoen gaian (esate baterako, etxez etxeko laguntzaren gaian), ez dut zalantzarik. Nik atentzioa ematen dut dokumentu honen hitzaurrean ez dela hitz egiten… gardentasun-printzipioaz hitz egiten dela, segurtasun juridikoaren printzipioaz... baina ez elkartasun-printzipioaz. Hori argudiatu dut, besterik gabe. Eta nola edo hala erregelamendu bat egiten denean, garrantzitsua da, halaber, hitzaurrean alderdi sozialari garrantzia ematea, eta hori ez da jasotzen, nahiz eta gero 3.2 puntua agertzen den, agertzen da... ohar bat egiten du. Baina hori besterik ez da. Ez dut besterik esaten. Eta hori da, hain zuzen ere, osoko bilkura honetan egin dudan ekarpena, araudi honi dagokionez. Eta besterik ez.

**ALKATE JAUNA:** Itzali, mesedez…Eskertzen dut musikarekin bat etortzea, sikiera asetzen nau musikarekin bat etorriko garela. Gero musika horri letra jartzerako garaian… bada… xehetasunen bat aipatu nahi baldin bada, preanbuloari ematen baldin bazaio garrantzi gehiago articuladoari baino gehiago, nik uste dut artikulatua dela lege batean azkenean gero aplikagarria den neurria, ez? eta nik nahiago dut artikulatuan egoki jasotzea preanbuloan baino. Baina nik ere aipatuko dut… eta zuk esan duzun bezala azaroaren 12an izan ziren azken

precios, tasas, tributos, precios públicos que hasta ahora de alguna forma estaban fundamentados en una cosa, que son las ordenanzas fiscales, que lo que se hace es ordenar una parte, pues evidentemente. Yo en el tema de las formas no…no me voy a meter. Pero sí digo que me hubiera gustado que de alguna forma a la persona que luego tendrá que hacer informes previos para decir si esto es una tasa o es un precio público o no sé qué, pues de alguna forma hubiéramos tenido por mi parte un informe previo para poder de alguna forma entender la letra de qué estaba haciendo. Simplemente ése es el detalle la cuestión. Punto.

En cuanto a la segunda parte, yo no dudo de este ayuntamiento bueno pues efectivamente como ha sido costumbre, se tenga la sensibilidad suficiente para que a la hora de los precios, pues hombre se vea, bueno, simplemente, y de hecho se han dado casos, la aplicación del IPREM o del IMS, en este caso, en algunos casos, tanto en el tema de las ayudas, por ejemplo el tema de las familias numerosas, como otras en el tema de los tributos, pero sí en el tema de los precios públicos, como es el tema del etxez etxeko laguntza, no lo dudo. Yo simplemente llamo la atención de que en el preámbulo de este documento no se hable... se hable del principio de transparencia, del principio de seguridad jurídica… pero no sobre el principio de solidaridad. Simplemente he argumentado eso. Y cuando de alguna forma se hace un reglamento es importante también darle en el preámbulo la importancia a la parte social, y eso no se recoge, aunque luego sí aparece el punto 3.2, aparece una…hace una apreciación. Pero simplemente es eso. No digo otra cosa. Y ésa es mi aportación en este momento en este pleno, a lo que yo puedo entender que es este reglamento. Y nada más.

**EL SR ALCALDE:** Apaga, por favor...Agradezco que coincidamos en la música, me satisface que aunque sea coincidamos con la música. Luego a la hora de poner letra a esa música... pues... si se quiere hablar de algún detalle, si se le da más importancia al preámbulo que al articulado… yo creo que en una ley es el articulado la medida que luego es aplicable, ¿no? y yo prefiero recogerlo correctamente en el articulado que en el preámbulo. Pero yo también citaré... y tal y como tú has dicho, el último informe lo recibimos el 12



ESKUcf281aa3-f998-4396-bef5-0a321126fa86

